

Topalekua

71 zk. 2011ko abendua

diciembre 2011 - n.º 71

orr. 1: *Gizarte Kontseiluak onetsi du Elgoibarko Txandakako Ingeniaritza Eskola UPV/EHUri atxikitzea*

orr. 2 y 3: *Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak (EGAB) hamar proposamen zehaztu ditu, prestakuntza gizarte- eta ekonomia-eskaeretara egokitzeko*

orr. 4: *Bilboko Irakasleen Eskolak instalazio berriak estreinatu ditu*

GIZARTE KONTSEILUAK ONETSI DU ELGOIBARKO TXANDAKAKO INGENIARITZA ESKOLA UPV/EHURI ATXIKITZEA

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak Bilbon abenduaren 14an egin zuen bileran onetsi zuen Elgoibarko Txandakako Ingeniaritza Eskola, Formación Técnica de Maquina Herramienta / Maquina Erreminten Hezkuntza Teknikorako Fundazioaren mendekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzea.

Atxikipen hori onartzeko erabakia proposatu zuen Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak. Izan ere, 2011ko urriaren 13an, Gobernu Kontseiluak onartu zuen Ingeniaritza Eskola hori UPV/EHUri atxikitzeko hitzarmena. Erabakian gogorarazi zuten ikasleak ordezkatzeko arauak egokitu behar direla UPV/EHUri atxikitako ikastegien arautegian aurreikusitakora.

Ikasketa osagarrien ikastaroa

Era berean, Kontseiluak onartu zuen “Ahozko patologiaren diagnostiko eta tratamendua” ikasketa osagarrien ikastaroaren matrikula-prezioa, eta 1.400 eurokoa da. Horrez gain, Kontseiluaren Oso Bilkuraren 2012ko bileren egutegia onartu zuen. 2012an, zortzi bilera egingo ditu honako egun hauetan:

- otsailaren 1ean
- martxoaren 7an
- maiatzaren 9an
- ekainaren 13an
- uztailaren 11n
- urriaren 3an
- azaroaren 14an
- abenduaren 12an

Bilera berean, Gizarte Kontseiluak IV. deialdiari dagozkion ordainketa-osagai gehigarriak, irakasle eta ikertzaileei esleitzekoak, eztabaidatu eta hainbat erabaki hartu zituen. Horrekin batera, esleipen batzuk berriro egitea eta aurreko deialdiei lotutako ebazpen batzuk betearaztea onetsi zuen.

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAK (EGAB) HAMAR PROPOSAMEN ZEHAZTU DITU, PRESTAKUNTZA GIZARTE- ETA EKONOMIA-ESKAERETARA EGOKITZEKO

Gaur, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordeak *La adecuación del Sistema Educativo a las Necesidades de la actividad socioeconómica de la CAPV* (“Hezkuntza Sistema EAeko gizarte- eta ekonomia-jardueraren beharriaz netara egokitzea”) azterlana aurkeztu du. Azterlan horretan adierazi dutenaren arabera, “hezkuntzari baliabide gehiago eman behar bazaio ere, dugun hezkuntza-sistema hobetu daiteke, eta honako hauek dira lantzeko gai giltzarriak: irakasleen sustapena eta motibazioa eta irakaste/ikaste prozesua antolatze modua”. Horregatik, hamar neurri proposatu ditu, bere ustez, ikasketak lan-merkatura egokitzeko beharrezkoak.

Azterlanean, egoeraren xehetasunak aztertu dira hezkuntza-maila guztietan: sistemaren ekitatea; bikaintasun-maila; lane-ratzeko aukerak, ikasketen arabera; eta, lan-merkatuaren egituraren eta ikasketen arteko doikuntzak eta doikuntzarik ezak. Txostenaren amaieran, besteak beste, hauexek daude zehaztuta: hezkuntza-sistema EAeko gizarte- eta ekonomia-siste-mara egokitzeko lau ardatz, kontuan hartu beharreko sei gogoeta, eta hezkuntza-sistemaren eraginkortasuna areagotzeko hamar hobekuntza-proposamen.

Ardatzei dagokienez, honako hauek proposatu ditu azterlanak:

Oinarrizko gaitasunak eta lan-gaitasunak garatzea.

Enpleguaren bilakaerari eta prestakuntzari lotutako informazioa transferitzeko sistema bat garatzea. Horrela, enpresek, erakundeek, herritarrek eta gizarte-eragileek datu fidagarriak izango dituzte, erabakiak hartzeko.

Prestakuntza-sistema malgua eta eskuragarria diseinatu eta hainbat prestakuntza-ibilbide eskaintzea. Horri esker, pertsonak errazago aukeratu dute lanbide-profil eta prestakuntza berrietan hastea.

Tituluak eta kalifikazioak azkar eguneratzearen alde egitea, eskaintzaren eta eskaeraren arteko doikuntza handiagoa izan dadin.

Behin ardatz horiek adierazita, sei **gogoeta** jaso dira azterlanean:

Premiazkoa eta beharrezkoa da hezkuntza-sistema egokitzea aldatuz doan gizarte- eta ekonomia-egoerara.

Enplegu Behatokiak eta prospektiba-ariketak oso eginkizun garrantzitsua beteko dute.

Hezkuntzaren helburua enplegarritasunetik baino urrunago doa, eta hezkuntzaren “tempo”a ez da lan-merkatuarena bezalakoa; hala eta guzti, komeni litzateke enplegurako prestakuntza gisako ereduetan aurrerapenak egitea, eta hezkuntza lantokiei begira orientatzea.

Honako paradoxa hau saihestu behar da: pertsona batzuk langabezian egotea, eta, aldi berean, prestakuntza jaso duten pertsonak ase gabeko beharrak edukitzea. Funtsezkoa da ikasleei eta langabetuei orientazioa emateko sistema egokia edukitzea.

Hezkuntza sistemak ekonomia eta ekonomia-eraren beharrak eta eskaerak kontuan izan behar ditu; eta, horrez gain, honako hauek aintzat hartu:

- “Berrikuntza, sormena eta adimena” ekonomia hobetzeko ardatz garrantzitsutzat hartu behar dira, eta ikasteko jarrera proaktiboak eskatu.
- Etengabe aldatzen ari diren ekonomia-sektoreen bilakaera, faktore anitzen ondorioa.
- Gizartean hainbat erronka ditugu, hala nola jaiotza-tasa eskasa, herritarren zahartzea eta etorkinen prestakuntza.
- Beharrezkoa da prestakuntza-maila txikiak dituzten herritarren kopurua murriztea, eta derrigorrezkoaren ondorengo bigarren hezkuntza jaso duten biztanleen kopurua handitzea. Horretarako, prestakuntza-ibilbideak eta lanaren eta prestakuntzaren arteko zubiek malguak eta anitzak izan behar dute.
- Ikasketa-porrota murriztu behar da, bai eta ikasketak bertan behera utzi dituzten ikasleen kopurua ere.
- Pedagogiaren orientazioa ezagutzak eskuratzetik gaitasunak eskuratzera aldatu behar da.

Lanbiderako prestakuntza funtsezkoa da langileen gaitasunak eguneratzeko.

Azterlanaren ondorioen artean aipatzen da egia dela jakintzaren gizartean aurrera egingo badugu, hezkuntzan modu selektiboan gehiago inbertitu behar dela, baina “hori ezin dela aitzakia izan hezkuntza-sistemaren eraginkortasun-ezak aintzat ez hartzeko”; hortaz, hamar hobekuntza-neurri zehaztu dira, gako gai batzuetan bereziki ahalegintzeko:

HEZKUNTZA-SISTEMAREN ERAGINKORTASUNA AREAGOTZEKO HAMAR PROPOSAMEN

1. Prestakuntza-ikastegiek eta unibertsitateek gizarte- eta ekonomia-ingurunearekin duten lotura handitzea, eta errealitatean oso oinarritutako orientazio integrala (prestakuntzarako eta lanbiderako) sustatzea.
2. Informazioa transferitzeko sistemaren eraginkortasuna (Enpleguaren Behatokia) eta haren prospektiba hobetzea.
3. Prestakuntza-maila txikia duten herritarren kopurua txikiagotzea, eta derrigorrezkoaren ondorengo bigarren hezkuntza jaso duten biztanleen kopurua handitzea.
4. Egokitze arazoak dituzten, porrot egin duten, eta ikasketak bertan behera utzi dituzten ikasleen kopurua murriztea. Horretarako, ahalegin handiagoak egin behar dira gizarte-egoera latzetan bizi diren ikasleei laguntzeko, eta egokitzen arazoak dituzten edo porrot egiteko arriskuan dauden ikasleei orientazioa emateko.
5. Oinarrizko gaitasunak eta lan-gaitasunak indartzea, eta “Lantokian trebatzeko ereduak” bezalako formulen bitartez prestakuntza osatzea. Horrela, pertsona horiek lanbide horretan behar diren oinarrizko gaitasunak garatuko dituzte, eta lanean hasteko prest egongo dira.
6. Espezialitate tekniko eta zientifikoak indartzea, eta kontuan hartzea jakintza-arlo askok diziplina anitzeko izaera dutela.
7. Atzerriko hizkuntzak ikasteari lehentasuna ematea.
8. Enplegurako prestakuntza (etengabea eta lanbide-prestakuntza) malgua eta eskuragarria izan dadin indartzea, ekonomia-sistemaren benetako beharretan oinarritua.
9. Gaur egun dagoen kalifikazioak zehaztu eta aitortzeko mekanismoa erraztu eta bizkortzea, lan-merkatuaren gaitasun-beharrei erantzuteko.
10. Unibertsitate-sistemari eta gaur egungo eta etorkizuneko eskaera jakin batzuei buruzko gogoetak eta erantzunak sustatzea. Unibertsitate-hezkuntzari dagokionez, honako hobekuntza-arlo hauek jorratu beharko lirateke:
 - Ikasketak bertan behera utzi dituzten ikasleen kopurua murriztea
 - Osasunaren eta laguntzaren jakintza-arloetan eta zientzia zehatzetan tituludun kopurua aintzat hartzea. Izan ere, arlo horietan tituludun gutxiago dugu erreferentziazat hartzen diren beste herrialde batzuek baino
 - Unibertsitate-irakasle gehiago doktore izatea
 - Irakasleek etengabeko prestakuntza jasotzea, irakaskuntzan gaur egun dauden erronkei aurre egiteko
 - Irakasleek konpromiso handiagoa izatea ikerketa-jardueretan parte hartzeko; eta enpresekin, teknologia-guneekin eta ikerkuntza-erakundeekin harremanetan jarri eta elkarlanean aritzeko

BILBOKO IRAKASLEEN ESKOLAK INSTALAZIO BERRIAK ESTREINATU DITU

Azaroaren 28an, Iñaki Goirizelaia errektoreak, José Luis Bilbao Bizkaiko ahaldu nagusiak, Isabel Celaá Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordeak eta UPV/EHUKo Gizarte Kontseiluko presidenteak, beste agintari batzuen artean, inauguratu zuten Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren eraikin berria, Leioa-Erandio eremuan kokatua. Instalazio berriek Bilboko Arangoiti auzoko eraikin zaharra ordezkatuko dute. Horrela, 2011-2012 ikasturte honetan Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan matrikulatu diren 2.072 ikasleek eraikin berrian osatuko dituzte euren ikasketak.

Gurutze Ezkurdiak, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendariak, adierazi zuen bezala “eraikin berri honi esker, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola behar zuen tokian egongo da, hau da, XXI. mendeko eraikin batean, non kalitatezko hezkuntza kalitatezko instalazioetan emateko aukera dagoen”. Instalazio berri horiek UPV/EHUKo Campusen Garapen Planak (2005-2010) aurreikusi dituen azpiegituren artean daude.

Irakasleen Unibertsitate Eskola César Azkarate arkitektoak diseinatu du. Guztira, 33.669 metro koadroko azalera du, eta beste ekipamendu batzuen artean, baditu 42 gela, 16 mintegi, bost ikasketa-gela, bi gimnasio eta 106 irakasle-bulego. 24 milioi euroko inbertsioa egin behar izan da, eta UPV/EHUK eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarrekin finantzatu dute.

IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA 2011/2012 IKASTURTEAN	
<i>Ikasleak guztira</i>	2.072
<i>Lehen mailako ikasleak</i>	475
<i>Irakasleak</i>	132
<i>Administrazio- eta zerbitzu-langileak (AZL)</i>	20



Eraikin iraunkorra

Ingurumena zaintzeko irizpide zorrotzak erabili dira instalazio berriak diseinatzeko; hortaz, haren iraunkortasuna bermatzen duten neurri aktibo eta pasiboak hartu dira. Neurri pasiboen artean nabarmena da arkitekturaren diseinu saiaturia. Ebaketek eginkizun garrantzitsua betetzen dute: neguan eguzkiaren indarra eraikinaren barnealdean jasotzeko aukera ematen dute, eta udan eguzki-izpiak saihesten dituzte; gainera, hozte-sistema naturala sortzen dute, urrezko laminarekin batera.

Neurri aktiboen artean aipatzekoak dira honako hauek: euri-uraren aprobetxamenduari esker, urteko kontsumo osoaren %27 aurreztuko da; panel termikoei esker, urteko 17.434 kiloko CO₂ gutxiago igorriko da; argiak modu jasangarrian erabiltzeko irizpideei esker, urteko 434.080 kiloko CO₂ igorpen gutxiago sortuko dira; eta horrekin batera, behe-tenperaturako galdarak ere instalatu dira. Horren guztiaren ondorioz, ia milioi erdi kilogramoko CO₂ atmosferara ez igortzeaz gain, urtero 107.000 euro inguru aurreztuko dira energia-kontsumoan.

